

## **GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2017/2018 ikasturtea**

### **Vitoria-Gasteizko Sansomendi auzoko Kale Hezkuntzaren esku-hartzearen analisisa**

**Egilea:** Oihane Ortiz de Zarate Ortiz

**Zuzendaria:** Aintzane Cabo Bilbao

Leioan, 2018ko maiatzaren 29an

# AURKIBIDEA

|   |           |
|---|-----------|
| Sarrera .....   | 4         |
| <b>1. Marko teorikoa.....</b>   | <b>5</b>  |
| <b>1.1 Kale Hezkuntza .....</b>                                       | <b>5</b>  |
| <b>1.2 Ijitoen komunitatea .....</b>                                  | <b>7</b>  |
| <b>1.3 Sansomendi auzoa .....</b>                                     | <b>11</b> |
| <b>2. Metodologia .....</b>   | <b>12</b> |
| <b>3. Emaitzak .....</b>  | <b>15</b> |
| <b>4. Ondorioak.....</b>  | <b>18</b> |
| <b>5. Hausnarketa pertsonala.....</b>                                 | <b>19</b> |
| <b>5.1. Nire bizipen pertsonala.....</b>                              | <b>22</b> |
| <b>6. Erreferentzia bibliografikoak .....</b>                         | <b>24</b> |
| <b>Eranskinak.....</b>  | <b>26</b> |
| <b>1. Vitoria-Gasteizko Udal Artxiboko dokumentuak .....</b>          | <b>26</b> |
| <b>2. Vitoria- Gasteiz hiriko ijito komunitatearen historia .....</b> | <b>33</b> |
| <b>3. Ijitoak Gasteizen, denbora lerroa .....</b>                     | <b>37</b> |
| <b>4. Dimentsioen taula.....</b>                                      | <b>38</b> |
| <b>5. Kategorien taula .....</b>                                      | <b>39</b> |
| <b>6. Baimen Informatuaren Dokumentua .....</b>                       | <b>41</b> |

# Vitoria-Gasteizko Sansomendi auzoko Kale Hezkuntzaren esku-hartzearen analisia

**Oihane Ortiz de Zarate Ortiz, UPV/EHU**

Gratu Amaierako Lan honen ikerketa objektua Vitoria-Gasteizko Sansomendi auzoko Kale Hezkuntzako Udal Programaren esku-hartzea da. Sansomendi auzoko biztanleriaren gehiengoa ijitoa da. Ijitoen komunitatea, gutxiengoen komunitate bat da, non, bere sorkuntza soziala aurreiritzietan oinarritzen den. Honek, pertsona hauen garapen indibidualean eta sozialean eragina dauka eta beraiek beraien eskubideak bermatzeko oztopoei zein mugeei aurre egin behar diete. Lan honen helburu nagusia Kale Hezkuntzako profesionalen esku-hartze sozio-hezitzailea ezagutzea da, lanbideen arteko harremanak, esku-hartze sozio-hezitzaileen faseak eta potentzialtasunak zein zailtasunak kontuan hartuta. Horretarako, elkarrizketa batzuk egin dira, auzoko kale hezitzaileari, *Gao Lacho Drom* gizarte hezitzaileari, IPI Sansomendi eskolako irakasle bati eta kale hezkuntzako programan egon ziren bi gazteei. Komunitateko lana eta horizontaltasunetik eta modu dialogikoan eraikitako harremanak, esku-hartzea arrakastatsua izateko gakoak direla ondorioztatu da.

*Ijito komunitatea, Kale hezkuntza, Sansomendi*

El objeto de estudio de este Trabajo de Fin de Grado es la intervención del Programa Municipal de Educación de Calle en el barrio de Sansomendi de Vitoria-Gasteiz. Sansomendi es un barrio donde residen en su gran mayoría personas de la etnia gitana. La comunidad gitana es una comunidad minoritaria cuya concepción social ha sido complementada mayormente en base a prejuicios. Este hecho hace que el desarrollo individual y social de estas personas tenga que hacer frente a obstáculos y limitaciones de derechos. El objetivo principal de este trabajo es conocer la intervención socio-educativa de los profesionales de la educación de calle, teniendo en cuenta las relaciones interprofesionales, las fases de intervención socio-educativa y sus potencialidades y dificultades. Para ello se ha realizado una entrevista a un educador de calle del barrio, a la una educadora de *Gao Lacho Drom*, a una profesora de la escuela IPI Sansomendi y una entrevista conjunta a dos jóvenes que han participado en el programa de educación de calle. Se concluye que tanto el trabajo comunitario, como las relaciones construidas desde la horizontalidad y dialógicas, son clave para el éxito de la intervención.

*Comunidad gitana, Educación de Calle, Sansomendi*

The objective of this End of Degree Project is the analysis of the intervention of the “Programa Municipal de Educación de Calle” in the Vitoria-Gasteiz Sansomendi neighbourhood. The Sansomendi neighbourhood population is mostly gypsies. The gypsy community is a minoritarian social group that it has been socially marginalized due to the preconceptions that non-gypsy population has about them. This fact has a very negative impact on the social and individual development of the gypsy community members. The main objective of this work is to get familiar with the social intervention that the community workers carry out, having into account the interprofessional relationships, the phases of the socio-educational intervention and the strengths and weaknesses that that this plan represents. For this aim four interviews have been made, one to a community worker from the neighbourhood, another to a *Gao Lacho Drom* community worker, one to an IPI Sansomendi teacher and a final one to two youngsters who have taken part in the plan. It could be finally said that both community development and the horizontal relationships built around the dialog are the keys for a successful intervention.

*Gipsy community, Community developemnt, Sansomendi*

## Sarrera

*Ausardia beldurraren garapena zela ikasi nuen, eta ez ordea beldurrik ez izatea. Gizaki ausarta ez da beldurrik ez duena, baizik eta beldur hori konkistatu duena.*

Nelson Mandela (1994, orri.115)

Esaldi hau irakurrita, nire lanari sarrera eman nahi diot. Beldurrak blokeatzen gaitu, ez dakigu zer egin eta askotan beldurra dela eta, inposatzen edo inposatzailearen jarrera azalerazten dugu. Gizarte bazterketari buruz hitz egiten dugunean, gizarteak sortzen dituen ezberdintasunak zein bazterketak beldurraren ondorio dira. Ezjakintasunak beldurra sorrerazten gaitu. Honekin batera, kultur ezberdinek, ez menperatzaileek edo minoritarioek ere beldurra sorrerazten gaituzte. Beldurrak zerbait edo norbait kontrolpean ez dugunean ere agertzen dira.

Lan hau Vitoria-Gasteizko auzo batetan burutu dut, Sansomendi auzoan, hain zuzen ere. Bertako biztanleriaren kopuru handiena ijitoek osatzen dute, zeinegan aurreiritzi eta ezjakintasun asko existitzen diren gaur egun ere. Komunitate hau hobeto ezagutzeko eta ulertzeko, auzoan garatzen den esku-hartze batetaz baliatu naiz, Kale Hezkuntza. Honen bitartez, kale hezitzaileek erabilitako esku-hartzeetan erabiltzen dituzten tresnak eta diseinuak, faseak, zailtasunak eta potentzialtasunak identifikatu ditut.

Kale Hezkuntzan zentratu naiz, bertako profesionalek ijitoen komunitatea ondo ezagutzen dutelako eta haiekin lan handia burutzen dutelako, hau bidea izanik kolektibo honetara hurbiltzeko.

Bestetik, erabilitako metodologia lana aurrera eramateko elkarrizketa irekiak izan dira.

Emaitzei begira, kategoria batzuk atera ondoren, garrantzia eman zaio komunitate lanari, hau da, elkarlanari, eraginkorra eta ezinbestekoa dena, ume eta nerabeen interesak zein beharrak ezagutzeko eta bertatik esku-hartze indartsu bat burutzeko. Harreman osasuntsuak eta horizontalak mantendu, zaindu eta aldarrikatu behar direla ondorioztatu da, konfiantza eta lan eraginkorra gauzatzeko.

Azkenik, Sansomendi auzoan izandako ibilbidea ikusterazi nahi nuen nire iritzi pertsonala irakurlearekin konpartituz, lan honi esker, ondorio batzuk argi geratu zaizkidalako.

## 1. Marko teorikoa

### 1.1 Kale Hezkuntza

Kale Hezkuntza, gizartearen eraldaketarako tresna bat da, pertsonen, taldeen zein auzoen potentzialtasunak garatzeko gai dena, bizi kalitate osasuntsu, inklusio eta elkartasunezkoetik abiatuz. Hau, esku-hartze sozio-hezitzaile garatu bezala ulertzen da sozializazio esparruetan, hau da, bertako populazioa haien aisialdia sortzen eta berdinetakoekin harremantzen diren tokietan (Blanco, Garcia eta Quintanar, 2010).

Guerau eta Plaza-k (1982) aipatzen duten moduan, Kale Hezkuntzak heziketa prozesu etiko batetan sinisten du, askatasunean eta desira indibidualak zein sozialak bideratzen duena (Arandia eta Cabo, 2018).

Kale Hezkuntzaren bitartez, Blanco, Garcia eta Quintanar -ek (2010) aipatzen dutenez, “errekonozimenduaren pedagogia”-tik, pertsona bakoitzaren barnean dauden onurak edo gauza positiboak bilatzen dira hauek balorean jarriz. Gazteek dituzten ahalmenak sustatu eta aurkitu nahi dira eta hauek positiboki hartu behar dira haien garapena modu osasuntsu batean lortzeko. Beraz, konfidantza egonda eta indibiduo bakoitzaren askatasuna errespetatuz, laguntza eman eta jasotzeko erlazio bat sortuko da.

Esku-hartze hau, zailtasunak dituzten umeei zein gazteei zuzenduta dago, bai haien testuinguruan, zein familia arloan. Beraz, esparru indibidualera, familiarra, taldera eta komunitatera heldu nahi da.

Proiektu honen barnean lan egiten duten profesionalen, gizarte hezitzaileak dira. Haien lana edo esku-hartzea akonpainamenduan oinarritzen da. Akonpainamendua, autoestimua goratzen, gaitasun pertsonalak garatzen eta bizitza sozialean parte-hartzea pizten duen prozesua da. Gizarte hezitzaileek, pertsonak subjektu aktibo bezala ikusi behar dituzte, non, indibiduo bakoitzak haien bizi bidea hartu eta bere biderako erabakiak hartu behar dituen. (Arandia eta Cabo, 2018)

Kale Hezkuntza, bere izenak esaten duen bezala, kalean garatutako lana da. Gizarte hezitzaileen lan esparrua kalea da. Baina, zer da kalea?. Kaleak ez dira bakarrik etxebizitzak, errepideak eta espaloiak topatzen ditugun guneak, kalea bizirik dago. Bizirik dago gurutzaketen bidez, begiraden bitartez... . Kaleak ez du identitaterik, ez du bere burua definitzen. Kaletik pasatzen diren pertsonen identitateaz antolatzen da, haien kulturetz, esperientziak eta istorioak nahastuz. Kalea mugituz, biziz, irrifar eta negar eginez, abestuz, dantza eginez, garrasi eginez... bizi da. Kalea nahiz eta gizatiarra ez izan,

gizatiarraren esentzia islatzen du (Dynamo Internacional, Arandia eta Cabo-k aipatuta, 2018)

Gizarte hezitzaileek, lan esparru honetan murgiltzean, kontuan hartu behar dute pertsonak modu indibidualean zein taldeka kalearen jabeak bihurtzen direla. Kalea ihes egiteko esparrua, babes leku, trantsizio edota arriskuak sentitzeko gunea, espresatzeko eta aldarrikatzeko espazioa, ikasteko eta lana burutzeko lekua, edo plazerra eta sufrimendua pairatzeko gunea izan daiteke ere bai (Guía Internacional, 2008).

Esparru honetan ezin dugu ahaztu giza eskubideak beti presente eta errespetatuak izan behar direla, pertsonen egoera ekonomikoa, kulturala edo soziala errespetatuz. Gizarte hezitzaileek honetan arreta handia jartzen dute pertsona hauen eskubideak zein justizia sarbidea aldarrikatuz (Dynamo Internacional, 2014).

Honekin batera, Kale Hezkuntzako lanean auzoa eta haren ohiturak, pertsonak eta galderak zein interesak ezagutzea beharrezkoa da. Baita, jendearengana hurbiltzea, itxarotea eta harremanen ondorioz, aldaketak sortzea. Azkenik garrantzitsua da, berriztea, inprobisatzea, pertsona eta errealitate ezberdinak ezagutzea, entzuten jakitea, informatzea eta pazientzia garatzea (Arandia eta Cabo, 2018) .

Beraz, Kale Hezkuntzako lana, emozioz beteriko prozesu luze bat da. Kale hezitzaileak, ikusten ez dena ikustarazi behar du, adierazpen askatasuna izan behar du eta epaiketetik kanpo egon behar du. Esparru honetan, pertsona bakoitzak bere bizitzaren jabe bihurtzea lortu behar du eta hau lortzeko behar diren erremintak zein baliabideak eskaini behar ditu.

“El Programa Municipal de Educación de calle (PEC) de Vitoria-Gasteiz: historia de una trayectoria y proyección al futuro” (2018) ikerketa lanan esaten den moduan, kale hezitzaileen eta lan egiten duten pertsonen arteko harreman estuak intentzio formalen eta itxura informalen arteko orekari esker sortzen dira.

Blanco, Garcia eta Quintanar-ek (2010) aipatzen duten bezala, Kale Hezkuntzak hiru alderdi ditu; errealitatearen analisia, bitartekaritza soziala eta esku-hartze heziketa. Lehenengoa, behaketa zuzena, parte-hartzailea, sistematikoa eta jarratzailean oinarritzen da, esparru publikoetan gertatzen diren fenomenoak behatuz beste hainbat informatzaileen laguntzarekin, hau da, zonalde berdinean dauden eragile sozial ezberdinekin. Bigarrena, bitartekaritza soziala gauzatzeko, hezitzailearen balibiderik nabarmenena bera da, bere gaitasun profesionalekin, bere trebetasun eta mugekin.

Amaitzeko, esku-hartzean “ezagutzaren pedagogia” praktikan jartzea saiatzen da, hau da, pertsona bakoitzak dituen alde positiboen bilaketan oinarritzen dena.

Laburbilduz, Kale Hezkuntzaren helburu nagusia pertsona bakoitzak bere bizitzako protagonista izateko laguntza eskaintzea da, akonpainamendua bidea izanez eta autonomia sustatzeari esker. Honi esker, haien egoeran, etorkizunean eta komunitatean subjektu aktiboak bihurtuko dira.

Honekin batera, prebentzio orokorrari, hezkuntza informalarri, arrisku murrizketari eta sendabideari lehentasuna ematen zaio, beti giza ongizateari zuzenduta. “Guía Internacional sobre la metodología de la educación de calle en el mundo”-k (2008) dio, “el bienestar social no es la ausencia de problemas o conflictos, al contrario, el lograr aceptarlos y tener la capacidad de superarlos”. Albert Einstein-ek esaten zuen, Diaz eta Sierra-k aipatua, (2008, orri.135), “lo peor es educar por métodos basados en el temor, la fuerza, la autoridad, porque se destruye la sinceridad y la confianza, y solo se consigue una falsa sumisión”.

“El Programa Municipal de Educación de Calle” (PEC), Vitoria-Gasteizko Udalaren Gizarte Politikako eta Osasun Publikoko Saileko programa da, Komunitate Ekintza Zerbitzu barnean dagoena. Ibilbide luze bat dauka Gasteiz hirian 1988.urtean sortu baitzen udal programa bezala. Honek, IRSE-Araba<sup>1</sup> erakundearekin elkarlana burutzen du, IRSE-Araba (Instituto para la Inclusión Social), zerbitzu pribatu bat da, 1987.ean jaioa Euskal Autonomia Erkidegoan. Bertan, disziplinarrekotasun lana burutzen da profesional ezberdinen eskutik zerbitzu zein programa ezberdinak aurrera eramateko.

Programan esku-hartze sozio-hezitzailea garatzen da ingurune irekian 8-18 urte bitarteko nerabeei zuzenduta dagoelarik, non, ezaugarri sozialek, familiarrek edo pertsonalek gazte hauen garapen pertsonala arriskuan jartzen duten. Beraz, honen helburua nerabeen garapena babestea eta sustatzea da, errealitatea ezagutzera bideratuz eta prebentzioa landuz.

## 1.2 Ijitoen komunitatea

- **Historia**

Munduan, mila milioi ijito baino gehiago daude. XIV eta XV. mendeetan Espainian, Portugalen, Alemanian, Errusian eta Europako erdialdeko zein ekialdeko herrialdeetan

---

<sup>1</sup> IRSE-Araba, instituto para la inclusión social hartuta, hemendik: [www.irsearaba.org](http://www.irsearaba.org)

bizi dira gehienbat. European, ijitoen komunitateek identitate kultural amankomuna dute, baina talde anitzak eraikitzen dituzte. Desberdintasunen eragina prozesu migratzailetik dator, haien herrialde geografikoa utzi zutenean, Punjab zonaldea, Indiako ipar-mendebaldea.

Espanian, ijitoen komunitatea XV. mendean du jatorria. Espainiara iritsi ziren, 1425.ean eta elkar harremana zeukaten Kataluniako nekazariekin, “les payes”-ekin. Horren ondorioz, “los payos” izena pertsona ijitoak ez direnak izendatzeko sortu zelaren ustea dago (Ruiz de Apodaca, García eta Gutierrez, 2011).

Espanian, 1944.-ean diskriminazioaren biktimak izan ziren eta “La Pragmática”-k haien jazarpena agindu zuen, judutarrekin eta moriskoekin batera. Hala ere, judutarrekin zein arabiarrekin gertatzen zenaz aparte, ijitoek lortu zuten kanporatuak ez izatea, haien nomadismoari esker (zaila ziren topatzea) eta fede-aldaketaren ondorioz (Agulló, Cabo, Capa, Rodríguez eta Sánchez, Fundación Secretario Gitano aipatua, 2010).

1560.ean, gobernua debekatu zuen ijitoak ezin zutela bidaiatu bi pertsona baino gehiago baldin baziren, beraz, bi mendeetan zehar Espainian bizi ziren ijitoak haien nomadismoa alde batera utzi behar izan zuten; bestetik, haien hizkuntza zein arropa erabiltzea ez zegoen onartuta.

1812.ean Kadiz-eko Konstituzioa lehengo alditan antzeman zituen ijitoek, hiritar espainolak egoera juridikoan. Frankismoaren menpean, ijitoen herriak bazterketa ugari pairatu zituen. Gaur egun *Ley Integral de Igualdad de Trato y no Discriminación*<sup>2</sup> izeneko lege proiektu aurrean ijitoen komunitatea gaur egungo gizartean gutxien baloratutako herrialdea da, *Fundación del Secretario Gitano*<sup>3</sup>-k (FSG) ikertu zuen arabera. Espainian, ijitoen komunitatea gutxi gorabehera 668.000 pertsonak osatzen dute (Ruiz de Apodaca, García eta Gutierrez, 2011).

---

<sup>2</sup> El Anteproyecto de Ley fue aprobado el 7 de enero de 2011 por el Consejo de Ministros (Gobierno del PSOE) iniciando un periodo de consultas en los órganos preceptivos (Consejo General del Poder Judicial, Consejo Fiscal, Consejo Económico y Social, Consejo de Estado), entidades del sector y Comunidades Autónomas.

Tras esta fase, el 27 de mayo de 2011, el Consejo de Ministros aprobó la remisión a las Cortes del ya Proyecto de Ley. Hurrengo helbidetik hartuta <https://www.gitanos.org/actualidad/dossieres/59360.html.es>

<sup>3</sup> Fundación del Secretario Gitano ikerketa legerari dagokionez, hartuta, hemendik: <https://www.gitanos.org/buscador/buscador.srv?q=ley+integral+de+igualdad&button>



- **Kultura eta Identitatea**

La cultura, es un todo complejo que incluye los conocimientos, las creencias, el arte, la moral, el derecho, las costumbres y todas las otras capacidades y hábitos adquiridos por el hombre como miembro de la sociedad. (Tylor, 1871, orr. 29)

Ijitoen komunitatean kultura nabarmen bat dago. Ijitoen populazioan, nahiz eta heterogeneotasun handia sumatu, honen barnean hainbat elementu komunak onartuta daude, haien kultura bizirik jarraitzeko balio dutenak. Kultura agrafoa da, belaunaldiz-belunaldi transmititzen dena, non emakume ijitoen papera oso garrantzitsua den, transmititzaile bezala. Ijitoen babes komunitarioak, identitate kultural sentimenduari esker ematen dena, indibiduoaren efektu zaintzaile garrantzitsua du (Ruiz de Apodaca, García eta Gutierrez, 2011).

Ijitoen kulturaren harira, hainbat elementu bereizi behar ditugu: ijitoek, familia zabalean oinarrituta dagoen egitura soziala dute, non, kohesioa ardatza den eta talde bezala jokatzen duen; haien senidetasun sistema leinu bezala artikulatzen da, arbaso komuna baten ondorioz familia taldeak sortzen dira; leinuarekin jarraituz, honek batasun integratzailea, defendatzailea eta babeslea eraikitzen du. Honekin batera, hitz egindako hitzari garrantzi handiagoa ematen diete, idatzizkoari baino; bestetik, indibiduoren estatusak familiaren barnean bi atxikitze marra ditu, sexua (emakumea- gizona) eta adina (adinduak- gazteak) eta honen arabera, leinua mantentzea, zintzotasuna, jakintasuna eta tradizioa mantentzean du oinarri. Bestetik, doluak, aktibitate sozialak zein laboralak geldiarazten ditu eta estetika pertsonala ere baldintzatzen du (janzkera beltza, zapia emakumeetan, bizarra gizonen kasuan...), hildakoaren figurari ematen dioten garrantzi handia lotzen zaio eta azkenik, emakumeen rola garrantzia, azken finean, emakume ijitoak hezitzaileak, haur eta adinduen zaintzaileak eta kultur arauak zein baloreak transmititzen dituztenak baidira (Ruiz de Apodaca, García eta Gutierrez, 2011).

Beste aldetik, kulturarekin amaitzeko, Lore Agirrezabal, 2003.ean *Argia*-n idatzitako artikulua<sup>4</sup> bati erreferentzia eginez, ijitoek, haien hizkuntza propioa zutela aipatu zuen. Erromintxela, euskal ijitoen hizkera zen, payoek ez ulertzeko sortu zutena. Hizkera berezia da eta hizkuntzalari nahiz historialari ugarien jakinmina piztu du urteetan zehar.

---

<sup>4</sup> ARGIA artikulua: "Erromintxela, euskal ijitoen hizkera". Hurrengo helbidetik hartuta <http://www.argia.eus/argia-astekaria/1913/erromintxela-euskal-ijitoen-hizkera>

Kulturarekin batera, identitatea ere eskutik dator. Tajfel-en (1982) ustetan, identitate soziala autokontzeptuaren parte bezala ulertzen da, non, indibiduo batek haren talde edo taldeen partaidea izanda, ezagutza soziala bereganatzen duen, bai esanahi emozionala eta baita balioztatzailea kontuan hartuz.

Honekin batera, ijitoen identitatea ulertzeko, hein identitatea modu pertsonalean zein kolektiboan ijitoa izatea eta sentitzea harrotasunez espresatzean datza. Ijito identitatean dauden oinarriko ezaugarrietatik hiru dira azpimarratu behar direnak, lehenik, familia zabalaren garrantzia, hau da, familia nuklearra zein lehengusuak, koinatuak, suhiak eta abar, hauek familia zabala osatzen dute. Bigarrenik, adin nagusiko jendeari errespetua edukitzea eta hirugarrenik, komunitate osatzen duten kideen artean elkartasuna edukitzea.<sup>5</sup>

- **Hezkuntza**

Gaur egun gizartean bizitzeko behar diren adimen erramintak eskuratzeko, testuinguru nagusia haurrei begira, eskola da. Beraz, gizartean murgiltzeko estrategiek zein baliabideek, harreman interpersonean eta egoera ezberdinen egokitzapenetan dute oinarria.

Ijitoen haurren eskolatze prozesua, hiru fasetik igarotzen da: lehenik, hezkuntza bazterketan, bigarrenik hezkuntza banaketan, hau da, segregazioan eta hirugarrenik, hezkuntza bateratuan. Gaur egun absentismoa arduratzekoa da. Absentismoa, hilabetean justifikatu gabeko bost falta edukitzea da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokionez, ijito ikasleak oso gutxikoak dira, absentismoa, eskola utzikeria eta nerabeen “galketa” nabarmentzen da (Laparra, 2005-2006).

Asistentzia irregularrari dagokionez, hainbat faktore desberdinek baldintzatzen dute ijitoen haurrak eskola alde batera uzteko;

- a) Ingurune sozioekonomikoa. Honi garrantzia ematen zaio, batez ere absentismoa ez delako berdina izango ingurune sozioekonomiko desberdinetan. Gainera absentismoa ez da berdina ikastaro osoan zehar.
- b) Ingurune sozio-familiarra: arduraren sozioekonomikoak, demografikoak eta haurren hezkuntzaren aukerak. Aldagai sozioekonomikoek zein demografikoek baldintza

---

<sup>5</sup> Fundación Secretario Gitano, identitate definizioa, hartuta, hemendik: [www.gitanos.org](http://www.gitanos.org)

batzuk jarriko dituzte absentismoari dagokionez. Aldagaiak honako hauek izan ahal dira; familia osaketan, gurasoen ikaskuntza prozesuan, gurasoen lanean, auzoan, etxebizitzaren egoeran edo aisialdian, gurasoen pertzepzioan haien haurren hezkuntza dela eta, hezkuntza sistemaren iritzian, irakasleen iritzian edo haien harremana hezkuntza zentroarekin....

- c) Beste batzuk (erlazio sozio-hezitzaileak: bertikalak eta horizontalak...). Gehien bat irakasleekin loturikoak, hau eskolaren dinamizatzailerak delako eta haren jarrerak zein ezagupenek ikasleek eskolarekiko duten jarrera baldintzatuko dute

Azkenik, esan beharrekoa da hezkuntza inklusiboa zein kulturartekoa bideratu eta sustatu behar dela. Bertan, talde desberdinen arteko kontaktuak bermatu behar dira harreman interpersonalak sortzeko helburuarekin, ijitoak zein ijitoak ez direnak, estatus berdina edukitzeko eta guztien artean lankidetasunean aurrera egiteko. Honekin batera, errespetua lehenengo puntuan ageri behar da, adierazpena indartuz zein ijito komunitateko kulturaren berezitasunak garatuz eta konpartituz (Laparra, 2005-2006).

### 1.3 Sansomendi auzoa

Vitoria-Gasteiz hogeita zortzi auzotan banatuta dago eta Sansomendi horietako bat da. Sansomendi hiriaren iparraldean kokatuta dago, auzo honen mugen artean, Ehari-Gobeuko industrialdearen zati bat barnean hartzen du, lantegiak eta etxebizitzak parke luze batek banatzen dituelarik.

Sansomendi, gaur egun Gasteizko auzo bat da, baina ez da betidanik horrela izan. 1960ko hamarkadaren amaieratik aurrera sortu zen hiriaren kanpoaldean, hiritik kilometro batera. 1975era arte, auzokideen kopurua oso txikia zen baina, 1976. urtetik aurrera auzoa sortzen hasi zen. 1976tik 1985era doan hamarkadan, etxebizitzaren kopurua asko hazi zen, hau da, 1976an 3 etxebizitza zeuden eta 1986an 2.463, orduetik 1995.era arte beste 1.331 egin ziren. Honekin batera, 1997an Sansomendiko gizarte etxea ireki zen eta Eusko Jaurlaritzaren bulegoak ezarri zirenean 1980an, auzoak izugarritzko gorakada egin zuen (Goikolea eta Melero, 2002).

Aurretik aipatu den bezala, Sansomendi auzoa jatorri batean Gasteizko kanpoaldean sorturiko auzo bat zen eta horrek auzoaren izaera guztiz markatu zuen. Eraikitako etxebizitza gehienek, Vimuvisek (Viviendas Municipales de Vitoria, S.A.) eredu berri bat sortu zuten hiriko langileen klaseentzako. Etxebizitza gehienak babes ofizialekoak izanik,

diru-sarrera gutxiko pertsonentzako eraiki ziren. Eredu berri honek klase sozialen segregazioa ekarri zuen (Arriola,1991).

Honekin batera, Zárate-k. (1988), “Bienestar social y diferenciación interna de espacio urbano. Vitoria-Gasteiz” testuan ondorengoa dio; Sansomendi auzoan giza ongizatea baxua dela, bertan hiriko langabezia tasarik handiena dagoelako. Modernitate gune bat denez, ongizate urriko mailak arreta deitzen du, baina azalpena, etxebizitza honen eraikuntzan dago. Batetik, etxebizitza txikiak eta kalitate baxukoak direlako, diru-sarrera gutxiko pertsoneri bideratuak eta bestetik, hiriko erdigunetik urrun daudelako.

Auzo honetan hainbat zerbitzu aurki ditzakegu, batez ere zerbitzu publikoak. Lehenik eta behin, gizarte etxea daukagu bertan, gizarte zerbitzua, liburutegia, ludoteka, gazte kluba, fonoteka, gizarte eta kultura alorretako lokalak eta kirol instalazioak topa ditzakegu. Bestetik, osasun zentroa eta hezkuntza arloak (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, institutua eta helduentzako EPA) ditugu. Auzo elkarteak eta aisialdiko elkarteak ere badaude, baita elizak zein parrokiak topatzen ditugu. Guardia zibilaren kuartela Gasteizko auzo honetan kokatzen da eta azkenik, *Gao Lacho Drom* elkarteak. Elkarte honen informazio gehigarria “Ijitoak Gasteizen” entitate honetatik emandakoa, 2. eranskinean atxikitzen da.

*Gao Lacho Drom* izena, Romani hizkuntzatik dator eta “bide ona daraman herria” bezalako itzulpena dauka. Aitzindariak, 1971.urtean lehenengo mugimenduak zein borrokak aurrera eramane zituzten, txaboletan bizi ziren ijitoei laguntza eskainiz Sansomendi auzo bezala sortzen zihoan, eta ekonomikoki larri zeunden familia askok, pisu duin batean bizitzea zein lan egonkor bat edukitzearekin amesten zuten. Gaur egun, 36 urte eta gero Gasteizko ijitoen komunitatea 3.000 kide edo gehiagok osatzen dute. Elkarte hau 34 partaidek eramaten dute aurrera, bertan hitzarmen instituzionalak sinatzen dituzte hainbat programa ezberdinak eskainiz. Horrela, komunitateko kide askok, lanbide bat ikastea posiblea dute (soldatzaile edo karretilero izateko klaseak ematen dira), baina horretaz aparte, osasuna zaintzen eta kolektibo honen umeei dagokionez eskolarako laguntza kontuan hartzen dute<sup>6</sup>.

## 2. Metodologia

Metodologia, logikaren adarretik datorren ezagutza da, zeinek metodo ezberdinen ardura hartzen duen, ezagutza kritikoa eta zuhurra bideratzeko oinarri zientifikoetan. Ikertzailea

---

<sup>6</sup> *Gao Lacho Drom* historia, hartuta, hemendik: [www.gaolacho.com](http://www.gaolacho.com)

estrategia eta prozedura batzuetan oinarritzen da, ikerkuntzaren helburuak lortzeko (Lases, 2006).

Marko teorikoa formulatzeko lan nagusia internetetik zein liburutegietatik bildutako informazioa jasoz egin dut, hau da, berrikusketa bibliografikoa egin dut, alde batetik “Google Academic”, “Dialnet”, “ADDI” datu baseetaz baliatuz, bertan ijitoen informazioa topatu dut, esate baterako *Situación social y tendencias de cambio en la comunidad gitana (2005-2006)*, eta beste alde batetik baita, Vitoria-Gasteizko Udal artxibotik, (1.eranskinetan atxikitutako dokumentua: *La producción de una ciudad-maquina del capital: Vitoria-Gasteiz, 1991*) eta Gasteizko Florida-ko liburutegitik, adibidez, *Vitoria-Gasteiz Barrio a barrio II. Sansomendi. Mi barrio. (2002)* ateratako informazioaren bidez.

Lan honen helburu orokorra, Vitoria-Gasteizko Sansomendi auzoan kaleko hezkuntzako profesionalen esku-hartzea ezagutzea da eta helburu espezifikoak, esku-hartzean kontuan hartu beharreko aspektuak identifikatzea; profesionalen eta pertsonen arteko harreman hezitzailea aztertzea; esku-hartzearen faseak ezagutzea eta esku-hartzearen zailtasunak eta potentzialtasunak identifikatzea izango dira. Beraz, elkarrizketekin hasi baino lehen, dimentsio taula bat osatu nuen helburuak, dimentsioak eta galderak jarritz.

Bigarren atala, elkarrizketen bitartez gauzatutako ikerketa izan da, hauek irekiak izan dira, metodologia komunikatiboan oinarrituz. Elkarrizketa irekiak gauzatzeko prozesu parte-hartzailean oinarritu naiz, metodologia honekin elkarrizketa horizontala mantendu da, hau da, hitz egiterako orduan maila berdinean mantenduko gara bai elkarrizketatzailea bai elkarrizketatua. Honekin batera, Paulo Freirek (1998) esaten zuen modua, honelako metodologian ekintza dialogikoa ezinbestekoa bihurtzen da kritikotasuna eta dialogoa oinarritzat hartuz. Bada, elkarrizketak burutzean elkarrizketatuak haien bizitza, esperientziak edo egoerak plazaratu dituzte sakontasunez eta hauek lana burutzeko garrantzitsuak izan dira. Elkarrizketekin hasi baino lehen, dimentsio taula bat osatu nuen helburuak, dimentsioak eta galderak jarritz. Dimentsio taula 4. eranskinean kontsulta daiteke.

Elkarrizketak pertsonalak izan dira, hau da, galderak modu pertsonalean formulatu eta aztertu egin dira, modu zuzenean eginez elkarrizketatuari. Elkarrizketa pertsonalen abantailak, erantzun gehiago eta korapilatsuak lortu, momentuzko zalantzak argitu eta gorputz zein hizkuntza berbala aztertu ahal direla dira. Aldiz desabantailak, iraupen

luzeagoa daukate eta elkarrizketatua mesfidantza dela eta egitasunez ez duten erantzunak eman ditzake.<sup>7</sup>

Honekin batera, Roca i Girona-ren (2011) ustetan, elkarrizketak hainbat multzotan sailkatu ahal dira; informalak, egituratu gabeak, semi-egituratuak eta talde eztabaida. Burututako elkarrizketak semi-egituratuak izan dira; hau da, elkarrizketa esperientzia konkretu batean zentratuko da eta ikertzaileak informazio horren inguruan dauden gaiak lehenago analizatuko ditu informazioa batzeko. Bestetik, burututako beste elkarrizketa bat talde elkarrizketa izan da. Beraz honetan, ikertzaileak informatzaile ezberdinak batu ditu eta haiek sortutako hizketaldien, hausnarketen eta eztabaiden bitartez informazioa jaso du (Pujadas I Muñoz, 2011).

Elkarrizketak egiteko, behin zein galderak egingo ditudan jakinda, jendearekin harremanetan jarri naiz, eta egun bat finkatu dugu elkarrizketa egiteko. Honekin batera, elkarrizketarekin hasi baino lehen hau grabatua izango zela azaldu diet eta sinatu beharreko baimen informatu helarazi diet. Baimen informatuak, etikaren inplikazioarekin lotura du, elkarrizketekin hasi baino lehen, momentu guztian ikerketaren inguruan informatuak egon direla elkarrizketatuak. Baimenaren eredia 6. eranskinean dago.


Bukatzeko, emaitzak zein ondorioak ateratzeko, kategorien taula bat osatu nuen, ahotsak sailkatzeko kategorietan eta analisisa egiteko. Taula, 5. eranskinan dago atxikituta.

Guztira lau elkarrizketa burutu ditut:

- 1. Sansomendi auzoan lan egiten duen kale hezitzailea.
- 2. Gao Lacho Drom elkartean lan egiten duen gizarte hezitzailea.
- 3. IPI Sansomendi eskolako irakasle bat
- 4. Sansomendi auzoan bizi diren eta Kale Hezkuntza programan parte hartu duten 18 urteko bi gazte.

---

<sup>7</sup>QuestionPro, crea encuestas online. Elkarrizketen informazioa hartuta, hemendik: [www.questionpro.com](http://www.questionpro.com)



*1.go. Irudia: Noiz, nori eta non burutu ziren elkarrizketak.*

### 3. Emaitzak

#### - Sansomendi auzoa

Sansomendi kultur aniztasun handiko auzoa da, gehienbat ijito zein migranteak direlako. Lehen, ijitoen familientzako sortu zen, baina gaur egun ez daude bakarrik ijitoak, jatorri ezberdineko pertsonak bizi dira. Bertan bizi diren pertsonen ustetan, auzoa normala da, Gasteizko beste auzo bat bezala:

Un barrio, normal, para mí, lo es, un barrio como puede ser Salburua, Zabalgana... yo diría eso, Eso es un barrio más. (AUZ004 eta AUZ005)

#### - Profesionalen eta pertsonen arteko harreman hezitzailea

Auzo honetan dagoen beste puntu garrantzitsu bat harremanak dira, harremanak egiteko bai profesionalen artekoak bai gazteekin erabilitakoak. Profesionalen arteko harremanak beraien izakeragatik sortzen dira, amankomuneko proiektuak sortzeko eta laguntza profesionala gauzatzeko gai direlarik:

...**la relación que tenemos es más oficiosa que oficial**, es decir consideramos tanto ellos como nosotros que tenemos muchos chavales en común y **muchos objetivos en común** y pues hay muchas cosas que hacemos de manera oficiosa pues bueno porque nos nace hacerlo más que con una programación (HRM002).

Bestetik, harremanak sortzea gazteekin kale hezitzaileei barnetik ateratzen zaie, hau da, kalean agurtzen dute, haiekin harremantzen dira kalean, eskolara joaten dira, ekintza bereziak sortzen dituzte gazteen interesetik abiatuta... Hori horrela, kale hezitzailearen ustetan, talde bat ezagutzean eta lehenengo kontakua gauzatzean, taldea ez da ixten, guztiz kontrakoa gertatzen da, taldea zurekiko irekitzen da.

Honekin batera, gazteen iritzia ere kontuan izanda, hauek ez dute ikusten kale hezitzaileak profesional bat moduan edo lanean dagoen pertsona bat bezala, baizik eta lagun edo kide moduan:

Y yo creo que eso es muy importante, nunca se acerca a nosotras, así como por trabajo, es como que **nunca la hemos visto como educadora**, yo creo que hacer como que te

vean cercano y no como que tú, le vas a ayudar porque eres alguien, sino porque quieres ayudarle, yo creo que eso me parece importante. Y es por lo que digo que se acercó, justo como una forma muy **cercana muy simple, y muy llana eso fue lo que más me gusto de ella. Todo muy horizontal** (HMR005).

Jarraituz, konfidantzazko harremanak ere aipagarriak dira, bertan arazoak edo zailtasunak kontatzeko era eroso batean egin ahal direlako, horretarako kale hezitzailearen jarrera oso nabarmena izango da, gazte batek hau aipatzen du:

Son como unos amigos... pero enseguida que conocimos a Idoia **cogimos confianza** con ella y todo muy bien. Pero no costo hacerse a ella porque como es tan cercana a nosotros, **lo hizo muy fácil** (HMR005).

#### - Metodologia esku-hartzean

Metodologiari dagokionez, harremanekin eta konfiantzarekin bat egiten duen beste aspektu nabarmenatariko bat da, honetan dialogoaren bitartez gazteak eroso sentitzeko espazio bat sortzea eta berdinen arteko hitza mantentzea, haien interesetatik abiatuta helburuak lortzeko sortzen da. Sansomendiko kale hezitzaileak honela dio:

Metodologia eraginkorrena; niri gustatzen zait dialogoa erabiltzea, metodologia **dialogikoa** (...), gazteen interesetan baliatzen gara. Helburuak finkatzeko ere. Oso garrantzitsua dira **harremanak** egiteko ze azken finean, inposatzen baldin baduzu, ez da ondo aterako eta haien interesetik zuk beste helburu batzuk atera ahal dituzu askoz gehiago jorratzeko (MTD001).

Kale hezitzailearekin batera, IPI Sansomendiko irakasleak berarekin bat egiten du:

...**elkarrizketa igualitario** bat sortzeko espazioa da, umeen gustuetatik abiatuta kasu honetan beraiek aukeratzen duten dantza, beraiek aukeratutako espazio batean elkarrizketa sortzea, non, kale hezitzaile, guraso, ikasleak beraiek ardatz eta irakasleak espazio igualitario bat sortzen dugu (MTD003).

#### - Kale hezitzaileen esku-hartzea

Jarraituz, Kale Hezkuntzari zein beste eragileei dagokionez, esku-hartzean presente dago, gazte zein umeen autonomiaren sustapena. Marko teorikoan aipatzen den bezala, Kale Hezkuntzak prebentzioan oinarritzen da. Kale hezitzaileak horrela deskribatzen zuen esku-hartzea, alde batetik hiru esparruetan edo eratan egiten dutela lan; era indibidualean, taldekan eta komunitatean. Bestetik, hiru fase bereizten zuen esku-hartzean, lehenengoa kontaktua, honetan gaztea ezagutzen dute; bigarrena, motibazioa, lehenengo momentutik helburuak jartzen dira martxan baina bigarren fase honetan helburuak zehatzagoak egiten dira eta gazteekin intentsitate handiagoarekin lan egiten da. Azkenik, hirugarren fasean jarraipena, hau azkenengo fasea izango da, gazte nagusiekin jorratzen dena, 17-19 tarteko gazteekin.



### - **Profesionalen helburuak lana burutzean**

Helburuei dagokionez, Kale Hezkuntzaren marko teorikoan azaldutakoarekin bat egiten dute, hau da, prebentzioan eta autonomia garatzean indar guztia batzen dute. Hala ere gizarteratzea da helburu nagusia. Kale hezitzaile zein *Gao Lacho Drom* gizarte hezitzailearen ustetan...:

Arrisku zorian dauden gazte hauek **prebentzioa** egiten, arrisku horiek grabe edo larriago ez izateko (...) gizarteratzea izango litzateke. Hezkuntza **normalizatzea, gizartean parte hartzea** (HEL001).

Que los chavales tengan una... se puedan adaptar a su entorno de una manera normalizada, que accedan a las cosas de una manera normalizada **que tengan las mismas oportunidades** que el resto al final (HEL002).

### - **Auzoan lan egiten duten profesionalen arteko elkarlana**

Elkarlana, sakontasunezko beste kategoria bat da, non, ikusi dugu nolako eragina eta ebidentzia bat den, lana aurrera pausuak emateko eta gazteen zein umeen potentzialtasunak agerian usteko. Alde batetik, *Gao Lacho Drom* gizarte hezitzailea hurrengoia komentatzen du:

Sí, sí al final estamos trabajando con los mismos chavales, de una manera o de otra estamos en el mismo barrio y si cada uno tira para un lado no tiene ningún sentido. Porque al final los que salen perjudicados son los chavales entonces no, **nosotros nunca hemos jugado a la tarta es mía, que te estás llevando tu más trozo que yo, no, pues la tarta es de todos y jugamos todos con lo que nos toca** (EKL002).

Eta bestetik, IPI Sansomendi eskolako irakasleak aipatu du:

**Eta ebidentzia bat da elkarlan honek umei egiten dien onura**, orduan alde positiboak beharrezkoa dela eta onurak ekartzen dituela egunerokotasunean... Bai ez dut kontenplazten eskolan elkarlan hori gabe (EKL003).

### - **Laguntza, bai profesionalen artekoa, bai gazteei emandakoa**

Arreta deitu didan beste puntu bat, laguntza edo akonpainamendua izan da, bai profesionalen artekoa eta baita ume edo nerabeei emandakoa. Laguntza terminologia honek batura handia dauka aurreko puntuarekin, elkarlanarekin. Honekin batera honelako ahotsak entzun ditugu profesionalen usteetan:

procuras ayudar en el momento en el que ves que algo no cuadra y sabes que es un chaval que está en el programa de calle pues les dices he visto a este chaval pues por aquí por allá con esta gente, y bueno le veo raro, y ellos hacen lo mismo con los chavales gitanos (LGN002).

Umeen beharrak asetzera. Edo **saiatzen beraz umeen beharrak ikustera...** (LGN003).

Gazteek honako iritzia zeukaten, lehenengoan haiek zertan laguntzen duten eta bigarreanean ze nolako laguntza edo akonpainamendua jaso zuten:

Luego también aportamos a la comunidad ayudando a los chavales en el colegio, después de clase con los deberes (LGN005).

Yo creo que si, además nos pillo en una etapa que es un poco difícil, porque estas en la ESO y estas como un poco perdida, en la que estaba un poco desorientada, y me acuerdo que **no sabía a quién contárselo y decidí contárselo a ella, y me ayudo mogollón** (LGN005).

#### - **Kale Hezkuntzaren potentzialtasunak**

Kale Hezkuntzako potentzialtasunak azpimarratzeko, kale hezitzaileak gazteen autonomian eta erresposabilitatean sinesten dute, heziketa integrala lortzeko nahiarekin, hau da, gizarteratzea. Bestetik IPI Sansomendiko irakasleak horrela dio:

Kale Hezkuntza da beharrezko eragile bat gehio, hezkuntza prozesuan, familiak diren bezala, umeek diren bezala, bueno umeak protagonista noski, baina kale hezitzaile gabe komunitatea ez da aurrera joango, azkenean, eragile guztiak dira garrantzitsuak (POT003).

Eta azkenik, neska gazte batek ondorengo esaten du:

Se acercan a ti, para ayudarte y si tienes algún problema o algo **nunca te va a restar siempre te va a ayudar** (POT004).

Amaitzeko, hurbileko erronkak daude. Bertan kale hezitzaileak eta *Gao Lacho Drom* gizarte hezitzaileak bat egiten dute, esanez buelta bat eman behar dutela elkarlanari eta haien arteko harremanei, hau da, harremanak estutzeari, elkarlan indartsuago egiteko nahiarekin.

Orohar, komunitate lanaren eta eragile guztien elkarlanaren garrantzia ikusi da, ume zein nerabeen ongizatea bermatzeko, aurrera pausuak emateko eta esku-hartze egoki eta eraginkor bat gauzatzeko.

#### **4. Ondorioak**

Emaitzak atera ondoren, ondorio batzuk azpimagarriak dira:

##### - **Harremanak**

Harreman profesionalei dagokionez, alde batetik, profesionalen arteko harremanak, estuak eta beharrezkoak dira esku-hartzea aurrea egiteko eta bideratzeko. Bestetik, profesionalen eta pertsonen artekoak. Kale hezitzaileak harreman hurbilean eta

berdintasunetik aritzen direla, espazio eroso bat sortzen dutela, non, konfiantzazko harremanak sortzen diren eta horizontaltasunez elkar harremantzen diren.

#### - **Metodologia**

Profesional ezberdinen eta gazteen ustetan, metodologia eraginkorrena eta erabilgarriena dialogoan oinarritzen dena da. Hau helburuak, konfiantza, interesak eta nahiak/grinak jakiteko zein lantzeko balio du. Honekin batera, horizontaltasuna eta berdineko tratua ezinbestekoa da.

#### - **Faseak**

Esku-hartze bat burutzean hainbat fase daude, hala ere faseak ezberdinak eta aldakorrak dira, hau da, fase bakoitzak esku-hartzean epe bat dauka eta denboraldiari dagokionez moldagarria izan daiteke.

#### - **Helburuak**

Sansomendiko profesionalak argi daukate haien helburu nagusia, bazterketa soziala pairatzen edo pairatu ahal duten ume zein nerabeei prebentzioa eta babesa ematea dela, beste batzuk dituzten aukera berdinak izateko.

#### - **Elkarlana eta laguntza profesionalen artean**

Elkarlana ezinbestekoa da aurrea pausuak emateko, azken finean ume berdinekin lan egiten dutelako, baina aipatu behar da gehienetan haien izaera dela eta sortzen dela elkarlan hau.

#### - **Potentzialtasunak**

Kale hezitzaileak beste eragileekin batera beharrezkoak dira gizartean, komunitatea aurrera joateko oinarrizkoak dira. Kale hezitzaileekin egoteak beti ekarpenak zein onurak ekarriko du.

### **5. Hausnarketa pertsonala**

Gaur egun Gasteizko hirian auzo ezberdinetan, Kale Hezkuntza izugarrizko lana burutzen ari da. Kale Hezkuntzako profesionalek inplikazio bat daukate auzoan eta auzoko eragile eta pertsona guztiekin, hau da, komunitatearekin, gazteen heziketa prozesua aurrera eramateko.

Sansomendi auzoa Gasteizko iparraldean kokatuta dago, bertan bi kale hezitzaile egiten dute lan, bertako gazteen prebentzioa eta heziketa integrala lortzeko helburuekin.

Behin auzo honetako eragile ezberdinekin bilduta eta elkarrizketa batzuk burutu ostean, Sansomendi auzoan Kale Hezkuntzako profesionalen esku-hartzea hobeto ezagutzeko eta ulertzeko ondorio pertsonal batzuk atera ditut. Ateratako ondorio aipagarrienak ondorengoak dira:

- **Burututako elkarrizketei buruz**

Elkarrizketak lanaren zati garrantzitsuenetarikoak izan dira, hauek lanean murgiltzeko eta helburuak gauzatzeko balio izan dute.

Aurrez aurreko elkarrizketak egitean, ez dut bakarrik argi atera eskainitako informazioa baizik eta, bertan erabilitako hizkuntzari ere arreta handia jarri diot. Bertan, hizkuntza berbalari zein gorputzaren hizkuntzari, urduritasunari edo lasaitasunari, hitzen sakontasunari eta erabilpenari, gorputz mugimenduei eta abarreko aspektuei arreta jarri diet.

Bestetik, zalantzak argitzeko eta lasaitasunez duda guztiak azaleratzeko balio izan dute, bai profesionalentzat eta baita niretzat ere bai. Honetan ere, berdintasunezko dialogoak mantendu egin da, non, horizontaltasuna mantendu egin den (hurrengo ondorio batean azaldutako ideia).

- **Ijitoen komunitateari buruzko informazioa**

Ijitoen komunitatea kolektibo zapaldua izan da urteetan zehar. Nahiz eta belarriak estali, gizarteak estereotipoak eta aurreiritziak sartu dizkigu kontrolik gabe. Gizarteak ereduak kanpo gelditzen diren kulturak zein identitateak baztertzeko dituzte, zurrumurru zein beldurrarekin jokatu.

Beraz, nire lan hau ijitoen komunitatearen inguruan egin ondoren nire iritzia asko aldatu da, ijitoak hobeto ezagutzeko eta beraien kulturari murgiltzeko balio izan zait. Ikuspuntua aldatzeaz aparte, nire iritzi propio izateko eta estereotipo zein aurreiritziei uko egiteko balio izan zait. Honekin batera gizarteak sortzen dizkigun beldurrak kanporatzeko erabilgarria izan da.

### - **Berdintasunezko dialogoari buruz**

Harreman batean bai sortzean, bai mantentzean, bertan erabilitako dialogoa zein hizkerari garrantzia eman behar zaio.

Kasu honetan, bai profesionalen arteko harremanak, bai gazteekin izandakoak, bai beste eragileekin izandakoa, ikusi dut zein garrantzitsua den horizontaltasuna. Profesionalak zein gazteak berdintasunezko dialogoa bermatzen dute, beraz honi esker, eroso sentitzen dira eta gauzak lortzen dituzte, esku-hartzea, esate baterako. Honekin batera, horizontaltasunarekin dialogo demokratiko bat lortzea posiblea da, non, iritzi guztiak baloratzen eta errespetatzen diren maila berdinean.

Dialogoari esker, errespetua lortzen da pertsona guztiak era berdinean tratatuz, honi esker proiektuak aurrera eramaten dira eragile guztiak parte hartuz, mantenduz eta errespetatuz.

### - **Elkarlanari buruz**

Unibertsitateko urte hauetan diziplinartekotasunari erreferentzia handia eman diogu, non, gure lana ez den modu indibidual batean egiten. Gizarte hezitzaileok ez dugu bakarkako lana burutzen, beti beste profesional batzuen laguntza esker bideratzen ditugu proiektuak.

Elkarrizketetan ikusi dugu ze nolako garrantzia daukan elkarlan bat burutzea, zer nolako eragina duen eta ze beharrezkoa den. Profesional ezberdinekin lana konpartitzea eta laguntzea onurak ekartzen ditu bai profesionalen artekoak bai ume zein gazteekin lan egitean.

Profesional ezberdinekin lan egitea laguntzeaz aparte, proiektu berriak sortu ahal dira, ume zein gazteak hobeto ezagutzea, testuingurua konpartitzea eta hobeto ezagutzea eta ikuspuntu ezberdinak elkar banatzea lagungarria izaten da. Egia da, batzuetan gure lanean ideia batzuk ditugula eta hauekin ikuspuntu zehatz batzuk, beraz, beste profesional batzuekin lana burutzeak beste ikuspuntu ezberdinak izatea ahalbidetzen gaitu aukera gehiago eta ezberdinak bultzatuz.

Gure abanikoa zabaldu egiten da, gauza batzuk argiago ikusten laguntzen gaitu eta “bakarrik ez gaudela” sentiarazten digu elkarlana gauzatzen dugunean, horregatik elkarlanean aritzea oso garrantzitsua da, nahiz eta batzuetan arazoak edo zailtasunak egon ahal diren. Azken finean, beste pertsona batzuekin lan egiten duzunean erraztasun handiak ez daude eta talkak egoten dira, gauza askotan ados jartzea zailegia delako, baina horretarako dialogoa oso garrantzitsua da arazoak konpontzeko eta saihesteko.

## - **Esku-hartzeari buruz**

Gizarte hezitzaileek lan ezberdinetan aritzen dira, baina helburu nabarmena esku-hartze bat burutzea da. Edozein esparruetan esku-hartzea presente egoten da, non, akonpainamendua bideratzen duten. Akonpainamendua bizitzaren autonomiarekin batzea ikusten dut, bertan pertsona bere bizitzaren jabe bihurtzea du helburu nagusia, non, hartzen dituen erabakiek bere bizitza bideratuko duten.

Esku-hartzea fase ezberdinetan sailkatzen da, fase hauetan ekintza ezberdinak batzen ditu hau eraginkorra izateko. Eraginkorra dela sentitzen dut, bakoitzak bere estrategiak batzen dituelako, motibazioa eta konfiantza sustatzeko nahiarekin.

Bestetik, konfiantza dagoenean, gauza konplexuagoak landu ahal dira, non, sentimenduak azalratzea askoz errazagoa den, gure bizi esperientzia pertsonala kontatzea, arazoak konpartitzea eta kritikak plazaratzea errazten duen. Honekin batera, konfiantza harremanak zaindu behar dira. Zaintza hori harreman osasuntsuekin batzen dut, non bakoitzak bere askatasuna daukan, besteen askatasunean edo mugetan sartu gabe.

### **5.1. Nire bizipen pertsonala**

GrAL honetan nire ibilbide pertsonala jartzea edo sartzea aproposa iruditu zait, arrazoi batzuk eraman nautelako gai honetan zentratzera.

